

FUNTSEZKO SOZIJETATEAK

Hasteko, buruan dugun produktua gauzaten lagunduko diguten enprekin harremanetan jarriko gara. Hortaz, lehenik "Lim complementos de peluqueria S.L" enpresarekin harremanetan jarriko gara, ileko lehorgailuak ekoiztu eta fabrikatzen dituelako. Enpresa honen egoitza Bartzelonan dago beraz bertara joan behar gara. Iristean gure proposamena erakutsi eta laguntza eskatuko diegu gure proiektua aurrera eraman dezaten.

Honekin batera, gure proiektuan ezinbestekoak ingnierioak izango dira, hortaz bi edo hiru ingnierioekin harremanetan jarriko gara, ileko lehorgailu batek guk nahi ditugun bi elementuak edukitzeko, hau da musika jartzeko aukera eta horretarako soinua egiten ez duen ileko lehorgailua.

Bestalde, gure webgunea, sare sozialak martxan jarri eta aktibo mantentzea ere garrantzitsua izango da. Hori guk egingo dugun eginkizuna izango da. Komunikazioa eta marketingaz arduratzeaz gain, gai administratiboaz ere arduratuko gara.

Produktua ekoiztu ondoren, hainbat enpresarekin hitz egingo dugu, gure ile lehorgailuaren publizitatea kudeatu ahal izateko. Hortaz gure marketing taldea arduratuko da.